

2/2022 TXOSTENA, MARTXOAREN 28KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA

XEDEA: MARTXOAREN 1EKO 3/2022 ERREGE LEGE DEKRETUAREN II. TITULUAREN APLIKAZIOA, OBRA-KONTRATU PUBLIKOETAKO PREZIOAK BERRIKUSTEKO SALBUESPENEZKO NEURRIEI DAGOKIENEZ

I.- AURREKARIAK.

laz, lehengaien prezioek hazkunde izugarria izan zuten; susperraldi ekonomiko globalarengatik eta haren ondoriozko lehengaien, produktuen eta zerbitzuen eskariaren hazkundearengatik. Horrek erakarri du kostuak handitu egin direla kontratu batzuk lizitatzeko unean aurreikusi ezin zen moduan eta, bide batez, zailtasun larriak sortzen direla haiek egikaritzeko, eta kontratu publiko orotan kontratistak bere gain hartu behar dituen arriskutzat jo litezkeenak gainditzen dituela.

Horregatik, Ministroen Kontseiluak onetsi du 3/2022 Errege Lege Dekretua, martxoaren 1ekoa, errepideko salgaien garraioaren jasangarritasuna eta kate logistikoaren funtzionamendua hobetzeko neurriei buruzkoa, eta 2020ko uztailaren 15eko 2020/1057 (EB) Zuzentarauaren transposizioa egiten duena. Zuzentaru horren bidez, 96/71/EE Zuzentaruari eta 2014/67/EB Zuzentaruari buruzko arau espezifikoak ezartzen dira, errepideen sektoreko gidarien joan-etorrietarako; eta obra-kontratu publikoen prezioak berrikusteko salbuespenezko neurriak ezartzekoa.

Hiru foru-aldundiei eta Eudeli alegazioak aurkezteko emandako epea agortuta, 2022ko martxoaren 11n aurkeztu zuen alegazio-idazkia azken horrek.

II.- ESKUMENA.

116/2016 Dekretuak, uztailaren 27koak, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kontratazioaren araubidearenak 26. artikularen bigarren apartatuan xedatzen du Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen egitekoa dela aholkularitza-betekizuna egikaritzea, koordinatzea eta kontratazio publikoaren alorrean indarrean dagoen araudiaren arabera haren esku-hartzea behar duten jarduketak gauzatzea.

Era berean, Dekretu horren 30. artikulua araberan, Batzorde Iraunkorrari dagokio, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak eskatuta, kontratazio publikoaren alorreko gaien buruzko irizpenak ematea, baldin eta gai horiek garrantzi berezia badute edo sektore publikoko erakundeentzat interes orokorrekoak badira.

III.- GOGOETA JURIDIKOAK.

Lehenik, esan behar da 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak buruzkoak, zeinaren bidez egiten baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa, 103. artikuluan, baimendu egiten duela sektore publikoko obra-kontratuen aldizkako eta aurrez araututako berrikuspena, prezioak berrikusteko mekanismoaren bidez; eta hori aplikagarria dela kontratua, gutxienez, guttizkoaren ehuneko 20an gauzatu denean eta formalizatu zenetik bi urte igaro badira.

Hala ere, 2021az geroztik obra jakin batzuk egiteko ezinbestekoak diren lehengaien prezioek izan dituzten igoerei ezin zaie aurre egin mekanismo horrekin baldintza-agirietan prezioen berrikuspenik aintzat hartzen ez duten kontratuetan, ez eta, hori aintzat hartu arren, formalizatu zenetik bi urte igaro ez direnetan ere, edota ez bada egikaritu haien zenbatekoaren % 20.

Horregatik, estatuko gobernuak egokitzat jo du, salbuespenez, kasu horietan bakar-bakarrik, kontratuaren prezioak berrikusi ahal izateko premia eta ezohiko neurriak hartzea. Hala, Ministroen Kontseiluak onetsi du 3/2022 Errege Lege Dekretua, martxoaren 1ekoa, errepideko salgaien garraioaren jasangarritasuna eta kate logistikoaren funtzionamendua hobetzeko neurriak buruzkoa, eta 2020ko uztailaren 15eko 2020/1057 (EB) Zuzentarauaren transposizioa egiten duena. Zuzentaru horren bidez, 96/71/EE Zuzentaruari eta 2014/67/EB Zuzentaruari buruzko arau espezifikoak ezartzen dira, errepideen sektoreko gidarien joan-etorrietarako; eta obra-kontratu publikoen prezioak berrikusteko salbuespenezko neurriak ezartzeko.

Obra-kontratu publikoetako prezioak berrikusteko salbuespenezko neurriak aipatutako 3/2022 Errege Lege Dekretuaren II. tituluan jasotzen dira, 6. eta 10. artikuluen artekoetan; bertan arautzen da prezioen salbuespenezko berrikuspen hori zein kasutan egin ahal izango



den, berrikuspena kalkulatzeko irizpideak, erreklamazioa egiteko prozedura eta ordaintzeko modua.

Hala, 6. artikulua arautzen du zein kasutan berrius daitezkeen ohiz kanpo prezioak obra-kontratuetan. Horri dagokionez, azpimarratzekoa da arauak obra-kontratuak baino ez dituela aintzat hartzen, eta prezioen salbuespenezko berrikuspen hori ez dela aurreikusten beste kontratu mota batzuetarako, adibidez, hornidura- edo zerbitzu-kontratuarentzako. Beraz, obra-kontratu publikoei eragiten die, administratiboak nahiz pribatuak izan, estatuko sektore publikoa osatzen duten erakundeek adjudikatutakoak eta Legegintzako Errege Dekretua indarrean jartzean egikaritzen ari direnei, hain zuzen. Era berean, 3/2020 Errege Lege Dekretuaren (uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetan diharduten entitateak kontratatzeari buruzkoaren) mende dauden obra-kontratu publikoei ere aplikatu dakieke.

Garrantzitsua da nabarmentzea 6. artikulua hirugarren apartatuak adierazten duen aurreikuspena: II. tituluan xedatzen dena aplikatu ahal izango da horixe erabakitzen duten autonomia-erkidegoetan eta Ceuta eta Melilla hirietan. Ondorioz, autonomia-erkidego bakoitzak horren inguruko erabaki bat hartu beharko du autonomia-erkidegoaren esparruan eta haren lurraldean dauden toki-erakundearen esparruan aplikatzeko.

Bestalde, 7. artikulua prezioen berrikuspena aitortzeko bete behar diren baldintzak arautzen ditu, eta hauek dira:

a) Aintzat hartuko da, baldin eta adjudikatutako obrarako erabilitako materialen kostuaren igoerak zuzeneko eragin handia izan bada kontratuaren ekonomian 2021eko ekitaldian. Alde horretatik, inpaktu hori dagoela ebatziko da material siderurgikoen, bituminosen, aluminioaren edo kobreakosten kostuaren igoera kontratuaren zenbateko ziurtatuaren % 5ekoa baino handiagoa izan bada 2021eko ekitaldian. Igoera kalkulatzeko, 2021eko ekitaldian ziurtatutako kontratuaren zenbatekoak prezioak berrikusteko formula aplikatuko zaio, halakorik izanez gero, eta halakorik ezean, obren izaeratik 1359/2011 Errege Dekretuan, urriaren 7koan, xedatzen direnetatik dagokiona.

b) Salbuespenezko berrikuspenaren zenbatekoa ezingo da izan kontratuaren adjudikazio-prezioaren % 20 baino handiagoa. Prezioen salbuespenezko berrikuspenaren zenbatekoa ez da kontuan hartuko kontratu-aldaketen mugen ondorioetarako.

Era berean, 8. artikulua prezioen salbuespeneko berrikuspena kalkulatzeko irizpideak arautzen ditu, berrikuspenaren ondoriozko zenbatekoa nola kalkulatu behar den adieraziz.

Bestalde, 9. artikulua prozedura espezifiko bat ezartzen du prezioen salbuespeneko berrikuspenarako. Hala, kontratazio-organoari dagokio prezioen salbuespeneko berrikuspena onestea, behar izanez gero; eta nahitaezko baldintza da kontratistak alde aurretik eskaera bat egitea, bi hilabeteko epean aurkeztu behar dena, bai LEDa indarrean sartzen denetik (2022ko martxoaren 2tik), bai kostuen oinarriko osagaien prezioen hileko indizeak, 2021eko azken hiruhilekoari dagozkionak, argitaratzen direnetik, argitalpena geroagokoa bada.

Kontratistaren eskabidearekin batera, behar den dokumentazioa aurkeztu behar da LEDak ezartzen dituen salbuespen-inguruabarrak daudela egiaztatzeko.

Kontratazio-organoak salbuespen-inguruabarrak betetzen direla aitortu behar du. Dokumentazioa behar bezala aurkeztu ez dela uste badu, 7 egun balioduneko epe luzaezina emango dio kontratistari, akatsa zuzen dezan. Epe barruan zuzentzen ez badu, eskaerari uko egingo zaio.

Era berean, kontratazio-organoak behin-behineko proposamen bat egin behar du prezioen salbuespeneko berrikuspena dagokion ala ez adieraziz, eta kontratuari aplikatu beharreko formula jakinaraziz; eta kontratistari horren berri emango zaio, 10 egun balioduneko epean alegazioak aurkez ditzan.

Era berean, kontratazio-organoak arrazoituta ebatziko du eskaera, hilabeteko epean, alegazioak jaso diren unetik edo haiek aurkezteko epearen amaieratik aurrera. Epe horretan ebazpen espresik ematen ez bada, eskatzaileak ulertu beharko du isilbidez ezetsi dela. Prezioen salbuespeneko berrikuspena emateak, ez du ekarriko behin betiko bermea birdoitzea.

10. artikulua prezioen salbuespeneko berrikuspenaren ondoriozko zenbatekoaren ordainketa arautzen du: ordaintzeko baldintza izango da kontratistak atzera egitea, modu frogagarrian egiaztatuz, edozein erreklamazio edo administrazio-errekurtsotan, edo kontratu zehatz horren materialen kostua handitzeagatik jarritako edozein auzi judizialetan.

Emaitzaren zenbatekoa obraren amaierako ziurtagirian aplikatuko da, baina kontratazio-organoak ahalmena izango du konturako ordainketak egiteko obra-ziurtagiri bakoitza ordaintzeko datarekin. Zenbatekoa, behar izanez gero, gorantz edo beherantz zuzenduko da kontratuaren likidazioan, berrikuspena aplikatu zaion aldiari dagozkion behin betiko indize ofizialekin.

Azpikontratisten babesa ziurtatzeko, salbuespenezko berrikuspen horren ondoriozko zenbatekoa jasotzen duen kontratistak bere azpikontratatari jasanarazi beharko dio azpikontratutako obraren zatiagatik dagokion zenbatekoa.

Azkenik, 10. artikulua 4. apartatuak honako hau xedatzen du: prezioen salbuespenezko berrikuspenerako eskubidea aitortu den kasuetan, kontratazio-organoak, kontratistari entzundakia eskaini ondoren, obraren egungo egoerara egokitutako lan-programa berria onartzeko eskubidea izango du, eta kontratistak bete egin beharko du. Kontratistari egotz dakiokeen arrazoren batengatik kontratua betetzen ez bada, aipatutako artikuluan aurreikusten diren ondorioak izango ditu (hertsatzeko isunak, zehapenak, bai eta prezioen salbuespenezko berrikuspenerako eskubidea galdu eta jasotako zenbatekoak itzuli behar izatea ere, are kontratistaren erruz kontratua suntsitzea ere).

Araudi berriarekin, sektore publikoko kontratuen prezioen berrikuspen berezia egin daiteke, are 9/2017 Legearen, azaroaren 8koaren arabera bidezkoa ez litzatekeen kasuetan ere, bai kontratuan itundu ez delako, bai legean ezarritako gutxieneko epea igaro ez delako edo berrikuspenera aplikatzeko beharrezkoa den obra-zatia gauzatu ez delako. Prezioen salbuespenezko berrikuspenaren tresna hori erabiltzeak badu abantaila bat: kontratazio-organoek horren berri izatea; neurria presaz eta berehala aplikatzea errazten du horrek eta, aldi berean, haren osagaiak doitzeko aukera ematen du, bidezkotzat jotzen diren kostuek bakarrik izan dezaten eragina formula aplikatzearen ondoriozko kopuruan.

Errege lege-dekretu hori Espainiako Konstituzioaren 149.1.18 artikulua babesean ematen da. Bertan, administrazio-kontratu eta -emakidei buruzko oinarrizko legeriaren gaineko eskumena estatuari esleitzen zaio. Beraz, errege lege-dekretu horretan aurreikusitakoa ohiz kanpokoa da eta ez du aldatzen edo ordeztan kontratu publikoen prezioak berrikusteari buruz indarrean dagoen araudian, 2/2015 Legean, martxoaren 30ekoan, Espainiako ekonomiaren desindexazioarenean, eta 9/2017 Legean, azaroaren 8koan, xedatzen dena eta oinarrizko legetzat hartu beharko dena gainerako administrazio publikoek aplikatzeko orduan.

Hala ere, horren hautazko aplikazioa baimentzen da autonomia-erkidego bakoitzaren eremuan, eta haietako bakoitzak bere aldetik erabaki dezake xedapen-arau hori aplikatzea, 6. artikuluko 3. apartatuan jasotzen den moduan. Ildo horretan, adierazi behar da, halaber, 3/1979 Lege Organikoak, abenduaren 18koak, EA Eren Autonomia Estatutuarenak, 11.1 b) artikuluan xedatzen duela Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumena dela Estatuaren oinarrizko

legeria lege bidez garatzea eta bere lurraldean betearaztea, nahitaezko desjabetzearen, administrazio-kontratuen eta -emakiden alorrean, bere eskumenen eremuan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren erantzukizun-sistemaren barnean.

IV.- ONDORIOAK.

Aurreko guztia aintzat hartuta, ondoriozta daiteke neurri horiek eragin ekonomiko positiboa izango dutela sektorean, eta horrek kontratuen suntsiarazpenen kopurua murriztea ekarriko duela, baita auzibide gutxiago eta aurrekontu-betearazpenaren ehuneko handiagoa ere; horrek guztiak susperraldi ekonomikoa sendotzen lagunduko du, une bereziki garrantzitsu batean, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana egikaritzen ari denean.

Adierazi behar da salbuespenezko prozedura horren bidez berrikus daitezkeen kontratuen elementuen artean ez dela aintzat hartzen energiaren prezioa, hain zuzen ere, Espainiako gobernuak dagoeneko neurri garrantzitsuak hartu dituelako elektrizitatearen handizkako prezioen igoerak etxean eta enpresen fakturan duen eragina samurtzeko, esate baterako BEZaren edo elektrizitatearen gaineko zerga berezia murriztea edo energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga etetea; kontsumitzaileak babesteko neurriak eta elektrizitatearen eta gas naturalaren handizkako eta txikizkako merkatuetan gardentasuna ezartzekoak, baita mugikortasun elektrikoa eta autokontsumoa eta energia berriztagarrien hedapena sustatzekoak ere (zehazki, onetsi dira 12/2021 Errege Lege Dekretua, ekainaren 24koa, zeinaren bidez premiazko neurriak hartzen baitira energiaren fiskalitatearen alorrean eta energia sortzearen alorrean, eta ura erabiltzeko tarifa eta erregulazio-kanona kudeatzeari buruz; 17/2021 Errege Lege Dekretua, irailaren 14koa, gas naturalaren prezio-igoerak gasaren eta elektrizitatearen txikizkako merkatuetan duen eragina samurtzeko premiazko neurriei buruzkoa; 23/2021 Errege Lege Dekretua, urriaren 26koa, elektrizitatearen eta gas naturalaren handizkako eta txikizkako merkatuetan gardentasuna ezartzeko eta kontsumitzaileak babesteko energiaren alorreko premiazko neurriei buruzkoa; eta 29/2021 Errege Lege Dekretua, abenduaren 21ekoa, energia-alorrean mugikortasun elektrikoa, autokontsumoa eta energia berriztagarrien hedapena sustatzeko premiazko neurriak hartzen dituen).

Beraz, egokitzen da 3/2022 Errege Lege Dekretuaren, martxoaren 1ekoaren, II. titulua Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzeko erabakia hartzea, bertan dauden toki-erakundeak beren-beregi barne hartzen direla.